

Irakasgaiaren izena	Kodea	Ikasturtea
Hurtzaroren Psikologia eta Hizkuntzaren Jabekuntza	151317	2020-2021
Titulazioa	Maila	Sehilekoa
HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA	2	2
Irakasgai mota	ECTS Kredituak	Hizkuntza
Oinarrizko Formazioa	6 ECTS	Euskara
Irakaslea(k)		
Iratí Alvarez Piñero eta Mainer Huarte Abasolo		

Justifikazioa

Ikasgai honek, 0 eta 6 urte bitarteko haurren garapen prozesuan eragiten duten aldagai anitzen kontzientzia lantzeko aukera eskaintzen dio ikasleari. Garapenaren dimentsioei, arreta goiztiarraren oinarrizko printzipioei, eta hezitzailearen eta haurraren arteko harremanak honen ikaskuntza prozesuan duen eraginari buruzko ezagutzak lantzen dira ikasgaiaren. Horrela, haurren ezaugarriekiko aproposak diren programazioak garatzeko gaitasunak landuko ditu ikasleak.

Bide batez, haurren oinarrizko beharrak eta garapen integrala asetzeko garrantzitsuak diren elementuak landuko dira: gelako denboraren eta espazioaren antolakuntza, zereginen aniztasuna, talde barneko elkarrekintzen egokitasuna, besteak beste. Horien ezagutza ezinbestekotzat jotzen da Haur Hezkuntzako irakasle batek jaso behar duen formazioaren baitan.

Bestalde, Hizkuntzaren Jabekuntzari buruzko ikasgaiaren moduluan, ikasleak 0 eta 3 urte bitarteko haurren hizkuntza jabekuntzaren garapena aztertuko du. Ikasleak hizkuntza jabekuntzaren oinarriak ezagutu beharko ditu, alde batetik; bestetik, etapa horretako hizkuntzaren garapenaren ezaugarrien diagnosis egiteko gai izan beharko da, kontuan izanik haurren artean egon daitezkeen desberdintasun nabarmenak.

Aurrebaldintzak

Ez daude

Gaitasunak

Gaitasun orokorrak

Ahozko komunikazioa (bigarren maila): Hitzen bidez norberaren ideiak, ezaguerak eta sentimenduak argi eta egoki adieraztea, egoeraren eta entzuleen ezaugarrietara egokituz, haien

ulerkuntza eta atxikimendua lortzeko. Taldean hitza erraz hartzea; segurtasuna adieraztea eta diskurtsoa eskakizun formaletara egokitzea.

Berriazko gaitasunak

1. Etaparen izaera eta beronen ezaugarri psikomotoreak, kognitiboak, sozialak eta afektiboak aztertu. Horietan oinarrituta, haurren ezaugarri psikoebolutiboekin bat datozen ikaskuntza-segidak eta egoerak planifikatu.
2. Arreta goiztiarraren oinarriak kontuan izanik, Haur Hezkuntzako curriculuma ezagutu eta baloratu.
3. Aniztasun testuinguruetan, adin tarte honetako haurren hezkuntza beharrei erantzuteko helburuaz, ikaskuntza espazioak eta denborak diseinatu eta erregulatu.
4. Haur Hezkuntzan haurren garapen integrala bultzatzeko helburua duten estrategia metodologiko egokiak aztertu.
5. Gelako egoera eta baldintza aniztetan gertatzen den ahozko komunikazioa bultzatzeko irakasleak darabiltzan estrategiak identifikatu eta deskribatu. Haur Hezkuntzako lehen zikloan ahozko adierazpena lantzearen eta estimulatzearen garrantzia justifikatu irizpide egokiei jarraiki.
6. Ikaslearen hizkuntza jabekuntzaren garapenaren etapa identifikatu, horretarako haurren produkzioen ezaugarriak eta dagokion une ebolutiboa lotuz modu argian eta justifikatuan.

Edukiak

1. Garapen psikoebolutiboa haurtzaroan
2. Etapako ezaugarri kognitiboak, psikomotoreak, komunikatiboak, sozialak eta afektiboak
3. Arreta Goiztiarraren oinarri teorikoak
4. Espazioaren eta denboraren antolakuntza haur eskolan
5. Haur Hezkuntzako estrategia metodologiko nagusiak
6. Hizkuntzaren tratamendua Haur Hezkuntzako lehen zikloan: justifikazioa eta tratamendu didaktikoa
7. Hizkuntza jabekuntzaren garapena 0-3 urte bitarteko haurren etapan: fonologia, semantika, morfosintaxia eta pragmatika

Ikas-irakaskuntzaestrategiak

Materiak honako irakaskuntza-ikaskuntza estrategiak jarraituko ditu:

- Aztergaia testuinguruan jartzen lagunduko duten jarduerak: 0-6 urte bitarteko haurren ikaskuntza euren testuinguruetan (familiakoa, soziala eta eskolakoa) ezagutzen laguntzen duten jarduerak. Esperientzia esanguratsuetan oinarrituko dira: hausnarketarako galderak egin; bizi esperientziei, hautemateei eta motibazioei erreferentzia egin, e.a. (Gutxi gora behera ikasgaiaren denboraren % 5 eskainiko zaie).
- Hausnarketa pizten duten jarduerak: Ekintza hezitzaileek, eta hurrek berdinekin eta helduekin duten elkarrekintzek, garapenarengan duten eraginari buruzko hausnarketa bultzatzen duten jarduerak: eztabaida edo behaketa sistematikoaren bidez, dokumentu desberdinak aztertuz,...

(Gutxi gora behera ikasgaiaren denboraren % 10 eskainiko zaie).

- Ikasgaiaren edukiei buruzko aurkezpenak eta lanak: Aurkezpenen eta testuen irakurketaren bidez, kontzeptualizazio aktiborako balio duten jarduerak. Arreta goiztiarraren oinarriak eta honek 0-3 eta 3-6 urte bitarteko haurrengan duen eragina ulertzeko balioko dute; baita etaparen ezaugarri psikoebolutiboan eta hezkuntza errealitatearen ezagutza orokorra izateko ere (Gutxi gora behera ikasgaiaren denboraren % 30 eskainiko zaie).

- Jarduera praktikoak: Aplikaziorako jarduerak: tailer praktikoak, ariketak eta proiektuak, simulazioak eta hurrekin bideratutako ariketa praktikoak (Gutxi gora behera ikasgaiaren denboraren % 45 eskainiko zaie).

- Ebaluazioa hurrengo atalean jasotzen den bezala bideratuko da: (Gutxi gora behera ikasgaiaren denboraren % 10 eskainiko zaie).

Ebaluazioa

Teknika desberdinak erabiliko dira:

Haurtzaroaren Psikologia modulua kalifikatzeko honako irizpide hauek jarraituko dira:

- Taldeko lanak:
 - Adimen anitzak: %10
 - Konfiantzaren pedagogía: %20
- Banakako lanak:
 - Portfolioa: %15
 - Ahozko komunikazioa: %10
- Azterketa: %45

Hizkuntzaren Jabekuntza modulua kalifikatzeko, ondoko teknika hauek erabiliko dira

- Hizkuntza arloaren xedeak Haur Hezkuntzan (taldeko lana) %20
- Haur Euskaldun elebatar baten ekoizpenen azterketaren aurkezpena (taldeko lana) %55 [%40 BG + %15 GO]
- Idatzizko froga (banaka) %25

OHARRAK

- ***Haurtzaroaren Psikologia* modulua kalifikazioa azken kalifikazioaren %60 izango da.**
- ***Hizkuntzaren Jabekuntza* modulua kalifikazioa azken kalifikazioaren % 40 izango da**
- **Ikasgia gainditzeko ezinbestekoa da modulu biak gainditzea**

Dokumentazioa

- Barandiarán, A., Larrea, I., eta Lopez de Arana, E. (2011). *Haurren ongizatea I: Oinarri psikopedagogikoak*. Arrasate (Gipuzkoa): Mondragon Unibertsitateko Zerbitzu Editoriala.
- Barandiarán, A., Larrea, I., eta Lopez de Arana, E. (2011). *Haurren ongizatea II: Hezkuntza proposamenak*. Arrasate (Gipuzkoa): Mondragon Unibertsitateko Zerbitzu Editoriala.
- Barreña, A. (1995). *Haur euskaldunen hasierako hizkuntzaren zenbait berezitasun*. Fontes XXVII.
- Benlloch, M. (2002). De ilusión también se enseña. *Infancia: educar de 0 a 6 años*, 75, 9-13.
- Bigas, M. y Correig, M. (eds.) (2001). *Didáctica de la lengua en la educación infantil*. Madrid: Síntesis.
- Bigas, M. (1996). La importancia del lenguaje oral en educación infantil. *Aula 46*, 5-8.
- Bigas, M. (2001). El lenguaje oral en la educación infantil. En: M. Bigas y M. Correig (eds.), *Didáctica de la lengua en la educación infantil*. Madrid: Síntesis.
- Cabrera, M. C., eta Sánchez Palacios, C. (1998). *La estimulación precoz: un enfoque práctico*. Madrid: Siglo XXI.
- Castro, J. P., Hernández, O. M., eta Galbarro, F. (2016). *Didáctica de la educación infantil*. Madrid: Editorial Síntesis.
- Celeste, B. (1990). *El primer año de escolarización: cuando el niño de 2 años llega a la escuela*. Madrid: Narcea.
- Chen, J. – Q., Isberg, E., eta Krechevsky, M. (2012). *El proyecto Spectrum. Tomo II: La teoría de las inteligencias múltiples en educación infantil*. Madrid: Ediciones Morata, S.L.
- Clemente, R. A. (1995). *Desarrollo del lenguaje*. Barcelona: Octaedro.
- De Diego, J. (1996). Aprender a usar el lenguaje en la escuela infantil. *Aula 46*, 9-13.
- De Pablo, P., eta Trueba, B. (1994). *Espacios y recursos para ti, para mí, para todos. Diseñar ambientes en educación infantil*. Madrid: Escuela Española.
- Doblas, M. S. (2009). El diseño de las rutinas diarias. *Revista de Innovación y experiencias educativas*, 16.
- Fiuza, M. J., y Fernández, M. P. (2013). *Dificultades de aprendizaje y trastornos del desarrollo. Manual didáctico*. Madrid: Pirámide.
- Garaigordobil, M. (1990). *Juego y desarrollo infantil: La actividad lúdica como recurso psicopedagógico. Una propuesta de reflexión y de acción*. Madrid: Seco-Olea.
- Gutiérrez, D., Bartolomé, R., eta Hernán, L. M. (1997). *Educación infantil II*. Madrid: McGraw-Hill.
- Jiménez, M. (2000). *Las relaciones interpersonales en la infancia: sus problemas y soluciones*. Málaga: Aljibe.
- Laguía, M.J., eta Vidal, C. (2009). *Haur-eskoletako jarduera-txokoak. Oitiko 6 urtera*. Leioa, Bizkaia: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- López, F., Etxebarria, I., Fuentes, M. J., eta Ortiz, M. J., (coord.) (2000). *Desarrollo afectivo y social*. Madrid: Pirámide.
- Madrid, D., eta Barcia, M. (2017). *Temas clave de educación infantil (0-6 años)*. Madrid: Editorial La Muralla, S. A.
- Muñoz, R. (2015). *Haurren garapenaren jarraipenerako protokoloa: arreta goiztiarra hezkuntzaren baitan. Bigarren fasea: detekzio espezifikoa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Muñoz, R. (2016). *Haurren garapenaren jarraipenerako protokoloa: arreta goiztiarra hezkuntzaren baitan. Arreta goiztiarreko marko-plana*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

- Perpiñán, S. (2013). *La salud emocional en la infancia. Componentes y estrategias de actuación en la escuela*. Madrid: Narcea.
- Rodrigo, M. J., eta Palacios, J. (coord.). (2000). *Familia y Desarrollo Humano*. Madrid: Alianza Editorial.
- Ronda, J. (1999). *El desarrollo del lenguaje*. Barcelona: ISEP.
- Serra, M. et al. (2001). *La adquisición del lenguaje*. Barcelona: Ariel.
- Serrano, A. M. (2005). *Inteligencias múltiples y estimulación temprana*. Sevilla: Eduforma.
- Viera, A. (2000). La atención a la diversidad en educación infantil: los rincones. *Aula de Innovación educativa*, 90, 25-32.